



*Fagor CNAko Enplegua Erregulatzeko Espedientearen negoziazio epearen bigarren bilera egin dute gaur.*

Hauxe da enpresa batzordearen oharra:

Bileran jakinarazi digute langile guztiak kaleratzeko asmoarekin aurrera jarraitzen duela enpresak.

Langileen ordezkariak, EEEa aurkezteko argudioak ez onartzeaz gain, ekoizpenaren aldeko apustua egitea eskatu dugu, jarduera Garagartzan mantenduz.

Zuzendaritzak, balizko bazkideekin izaten ari den bilerak direla eta ezin du beste ezer aurreratu, eta ezin duela argitu zein izango den proiektu industrialia. Hortaz, negoziaketa epea etetea eskatu dugu ezin dutelako argitu zein izango den aurkeztuko duten proiektu, argitu arte zer ematen duten negoziaketa horiek.

Gainera CNA Taldeko enpresen informazio ekonomikoa eskatu dugu, jakiteko zein den CNA Taldearen benetako egoera ekonomikoa. Era berean, Fagor S.Coop eta FagorCNAREN artean, marka erabiltzeko kontratuaren kopia eskatu dugu.



—